



NI PASAIAGILE NAIZ

PASAIAKO TOKIKO AGENDA 21eko FORMULAZIO ESTRATEGIKOA

2018

2018ko martxoa

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako proiektua, Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako Departamenduko Tokiko Agenda 21 programako ekintza planak garatzeko diru-laguntzen esparruan.

Dokumentu hau egiteko erabili diren udalaz gaindiko zenbait datu Udalsarea 21ek eman ditu.

LAGUNTZA TEKNIKOA: Udalak ENEA enpresaren laguntza teknikoa jaso du, zeina IKERTALDEekin elkarlanean aritu den.

PASAIKO TOKIKO AGENDA 21eko FORMULAZIO ESTRATEGIKOA

ZUZENDARITZA FAKULTATIBOA: Pasaiako Udala

Iñaki Ormazabal. Hirigintza eta Ingurumen Saileko burua

Joana Larrea. Ingurumen teknikaria

LAGUNTZA TEKNIKOA: ENEA eta IKERTALDE

Aiala Zubieta (ENEA). *Koordinazioa*

Lurralde eta ingurumen gaiak: lurralde eta antolamendua, etxebizitza, mugikortasuna eta biodibertsitatea eta paisaia.

Ana López (ENEA). *Koordinazioa*

Ingurumen gaiak: energia eta klima aldaketa

Susana Torreagaray (ENEA).

Ingurumen gaiak: ura, hondakinak, ingurumenaren kalitatea, arriskuen kudeaketa, erosketa publiko berdea eta administrazioaren ingurumen kudeaketa.

Elena Eizagirre (IKERTALDE).

Gizarte eta ekonomia gaiak: biztanleria, garapen ekonomikoa eta lan merkatua, ongizatea eta gizarteratzea, berdintasuna eta immigrazioa, hezkuntza, euskara, kultura eta kirola eta etxebizitza.

Nekane Bazterretxea (IKERTALDE).

Gizarte eta ekonomia gaiak: biztanleria, garapen ekonomikoa eta lan merkatua, ongizatea eta gizarteratzea, berdintasuna eta immigrazioa, hezkuntza, euskara, kultura eta kirola eta etxebizitza.

AURKIBIDEA

1. AURREKARIAK ETA TESTUINGURUA	1
2. FORMULAZIO ESTRATEGIKOA	2
- Ikuspegia	3
- Erronka estrategikoak eta xedeak	4

1. AURREKARIAK ETA TESTUINGURUA

Tokiko Agenda 21a lan tresna bat da, garapen iraunkorraren alde lan egiteko lan tresna hain zuzen ere.

Pasaiako udalak 2004.urtean heldu zion Tokiko Agenda 21aren gaiari. Momentu hartan, Oarsoaldeako Garapen Agentziaren bidez, Oarsoaldeako lau udalerrietan diagnostikoak egin ziren, baita eskualde mailakoa ere. Pasaiako momentuko argazkia osatu bazen ere, ez zen ondorengo plangintzarik egin, nahiz eta udalak hainbat aspektutan iraunkortasun gaiak landu izan dituen. Orain, bide honetan lanean jarraitzeko asmotan, lehentasunak, ardurak, eta epeak ezarriko dituen plangintza batean lan egiten hasi da udala. Plan honek tokiko ekintza lehentasunezko jarduera eremuetara bideratuko du eta ingurumen, ekonomia eta gizarte orekatu baten alde lan egingo du. Lanketa honen bidez ingurumenarekin errespetagarria izango den gizarte osasuntsu eta aktiboa eta herritar ororen bizi kalitatea bermatuko duen herria garatu nahi da.

Lehenengo pausua, Pasaiako egungo egoera ezagutzea izan zen. Horretarako, iraunkortasun diagnostiko bat garatu zen 2017an, zeinetan udalerriko **lurralde, ingurumen, ekonomia eta gizarte arloei buruzko azterketa zehatza** egin zen, eremu bakoitzeko gune sendoak azpimarratu eta hobetu beharreko gaietan atentzioa jarritz. Egindako azterketa "Pasaiako Tokiko Agenda 21eko Iraunkortasun diagnostikoa, 2017" dokumentuan jasota dago.


Aipatu beharreakoa da diagnostikoa burutzeko, **udal eta eskualde mailako eragileen parte-hartzea eta pasaitarren inplikazioa** guztiz beharrezkoa izan zela.

Diagnostikotik abiatuz, eta herritar zein teknikarien ekarpenak kontutan hartuz, **2030erako Pasaiarako Formulazio Estrategikoa** landu da, zeinak ondoren egingo den Planari izaera estrategikoa ematen dion. Bertan, estrategia baten elementu nagusiak definitu dira: **ikuspegia, erronkak eta xedeak**, eta gainera, aspektu guzti hauek udala osatzen duten politikari taldeekin landu dira Hirigintza Batzordean.



2.FORMULAZIO ESTRATEGIKOA

Formulazio Estrategikoa zehazteko ondorengo pausuak jarraitu dira:



Pasaia Tokiko Agenda 21eko Ekintza Plan berriak **izaera estrategikoa** izango du, hau da, **2030 urtera begira** udalerririk noranzko bidea hartu beharko lukeen eta zer emaitza lortu nahi dituen definitu da. Horretarako, hiru elementu landu dira:

IKUSPEGIA: 2030an Pasaia nolakoa izatea nahi den deskribatzen duen adierazpena.

ERRONKAK: udalerririk aurrera begira dituen helburu estrategiko nagusiak dira. Informazio honek baimentzen du egindako esfortzuaren eta lortutako hobekuntza emaitzen arteko kontrastea egitea, eta horrela, eraginkortasuna (lortutako hobekuntzak) eta efizientzia (lortutako hobekuntzak jarritako baliabideen arabera) baloratu ahal izango dira.

XEDEAK: planaren ezarpenarekin lortzea espero diren helburu kuantitatiboak dira.

2.1. IKUSPEGIA: 2030eko Pasaia

2030ean, Pasaia izaera desberdinetako barrutiek osatutako **HERRI NORTASUNA** duen udalerrria da. Herri elkartua da, barrutien arteko ur bidezko lotura motoraren bidez egiten da, eta oinezko eta bizikleta bideek, baita garraio publikoak ere, lehorretik lotzen dute Pasaia. Euskara entzuten da lau barrutietako kaleetan, eta ekipamenduak eta udal zerbitzuak konpartitu egiten dira.

Portua eta herria harmonian bizi dira, **PASAIA BIZIGARRIA** eginez. Udala eta portua elkarlanean aritzen dira, ingurumen kalitate oneko herria eta herri osasuntsua bilakatuz, beti ere herritarren bizi kalitatea bermatuz.

Udal politikak ere ingurumen gaiak ardatz ditu, eta hauen alde lan egiten du herritarrekin elkarlanean, **ERANTZUKIZUN PARTEKATUA**ren eredu ezin hobera iritsiz.

Pasaiak zerbitzuetara bideratutako udalerrria izaten jarraitzen du, baina natura balioek eta bertako baliabideen eta zerbitzuen erabilerak ekonomiaren dinamismo eta dibertsifikazioa ekarri dute, **PASAIA TOKIKOA ETA NATURALA** bilakatuz.

2.2. ERRONKA ESTRATEGIKOAK ETA XEDEAK

Ondoko hauek dira 2030. urtera begira adostutako lau erronka nagusiak:

Lau barruti, herri bat



Pasaia portuaren inguruan sortutako udalerria da. Portua da udalerria batzen eta zatitzen duena, **jarraipenik gabeko lau barrutitan** banatuz. Lau barrutiek izaera eta ezaugarri desberdinak dauzkate, garai desberdinetakoak baitira. Honek euskararen erabileran, udal ekipamenduen erabileran eta herri dinamikan ondorioak dauzkalarik.

Etorkizunean, lau barrutiek **oinezko, bizikleta eta motoraren bidezko lotura** izango dute, euskararen erabilera lau barrutietan orekatua izango da eta **udal zerbitzuak eta ekipamenduak elkarbanatu** egingen dituzte, barruti bakoitzak bere izaerari eutsiz, baina **herri nortasuna** indartuz.

Pasaia eta portua, herri bat

Herria, herritarrak eta portuak eremu batean **elkarbizi** behar dute. Portuko jarduerak eragina daukate **herritarren bizi kalitatean** eta portuaren eta udalaren arteko koordinazio, kolaborazio eta elkarlana ezinbestekoa da, herriaren onura bilatzeko eta herritarren beharrak asetzeko.

Etorkizunean, Pasaia eta portuaren artean elkarlana egonen da, herritarren onura bilatuz eta euren bizi kalitatea eta osasuna hobetuz.



Ingurumena zaintzen duen herri bat



Pasaia gero eta garrantzia handiagoa ematen dio **ingurumenari**, udal politikan txertatuta dagoen arloetako bat da, eta azken urteetan honen hobekuntzarako lanean dabil Udala, **herritarren erantzukizun partekatua** ere bultzatuz.

Etorkizunean, Pasaia ingurune osasuntsua dauka, pertsonak eta hauen ongizatea eta osasuna udal politiken oinarri dira, **eta herritarrek ingurumenaren alde arduraz jokatzeko dute.**

Mendia, ura eta herri guneak, herri bat

Pasaia eremu natural eta herri paisaia paregabea dauzka; **ura, mendia** eta ezaugarri desberdinetako **herri guneak** bereizten dira. Hauek, **udalerriko ekonomia** bultzatzeko eta bertako baliabide eta zerbitzuen erabilerari lehenetasuna emateko elementu garrantzitsuak dira.

Etorkizunean, Pasaia zerbitzuetara bideratutako udalerria izaten jarraituko du, baina garrantzi berezia emanez **natura balioei** eta **bertako baliabideen erabilerari.**



Jarraian erronka bakoitzerako xedeak adierazten dira:

1. ERRONKA: LAU BARRUTI, HERRI BAT

LURRALDE LOTURA:

Gaur egun Pasaia fisikoki banatutako udalerrria da. Bidegorri sarea eta oinezkoen sarea ez dago eraikita eta honek herri nortasunean zuzenki eragiten du, errazagoa suertatzen baita askotan inguruko herrietara joatea Pasaia bertara baino. Gainera ur bidezko lotura ere ez dago ziurtatuta.



EUSKARAREN ERABILERA:

Euskararen kale-erabilera barrutiaren arabera oso desberdina da. Donibaneko kaleetan entzuten da euskara gehien, elkarrizketen %35 euskaraz ziren 2015eko azterketaren arabera. Gainontzeko barrutietan baxuagoa da, Trintxerpe izanik euskararen kale-erabilera txikiena duen barrutia, %5,7 (2015).

2030. URTERAKO XEDEAK:

Pasaia lau barrutiak **bidegorri eta oinezko** sarearen bidez guztiz lotuta egotea, **baita uraren** bidez ere. Gainera, barruti barruetako sareak seguruak izatea.

Pasaia lau barrutietako kaleetan **euskara maila berean** entzutea.

2. ERRONKA: PASAIA ETA PORTUA, HERRI BAT

UDALA ETA PORTUAREN ARTEKO ELKARLANA:

Gaur egun portuko jarduerak sortutako inpaktuak lantzeko mahai bat sortuta dago, *Pasaia Badiako ingurumena hobetzeko erakunde arteko Batzordea*. Bertan, lau udalek (Pasaia, Errenteria, Lezo eta Donostia), portuko Agintaritzak eta udalaz gaindiko erakundeek (Eusko Jaurlaritzak, Añarbeko Urak, URA eta GFA) parte hartzen dute, eta bi arlotan aritzen dira, alde batetik mahai teknikoak eta bestetik politikoa.



Mahai hau urtean bitan elkartzen da eta hainbat gai lantzen dira, gehienbat, airearen kalitatea, zarata eta ura.

PORTUKO JARDUERA EKONOMIKOEN EGOERA:

Gaur egun portuko jarduerak gehienak legeztatuta edo tramitea hasita daukate, hala ere, batzuk oraindik legeztatzea geratzen dira. Nabalaldean daude legeztatutako jarduerak gehienak.

2030. URTERAKO XEDEAK:

Portuko jarduerak sortutako inpaktuak lantzeko **mahaiaren bilerak mantentzea**, eta bertan lantzen diren gaiak areagotzea herriaren beharrei erantzunez.

Portuko **jardueren %100 guztiz legeztatuta** egotea.

3. ERRONKA: INGURUMENA ZAINTZEN DUEN HERRI BAT

HONDAKINEN GAIKAKO BILKETA

EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2014-2020 Planaren helburua 2020an gaikako bilketa %75era iristea da. Pasaian 2016an %60 jaso zen gaika, hala ere, 2015 eta 2016 artean beheranzko joera bat ikusi da.



KLIMA ALDAKETA

Pasaia portuaren inguruan sortutako udalerrria da. Klima aldaketa eragina izaten ari da itsasoan (itsas mailaren igoera, olatu gero eta handiagoak eta maizagoak...) eta beraz, baita inguruan kokatutako udalerrietan ere. Pasaian gainera, klima aldaketaren eragina aztertzen diharduen erreferentziazko ikerketa zentro bat dago eta hainbat ikerketa egiten dira inguruan.

Europa mailan gaia lantzen ari da, eta Energia eta Klimaren aldeko Alkateen itun berrituan, 2030erako CO₂ isuriak %40an jaistea adostu da. Pasaia lehen aldiz udalerriko CO₂ isuriak 2014. urterako kalkulatu ditu, 40.768 tCO₂b izanik emaitza, hau da, biztanleko 2,5 tCO₂b isurtzen dira urtean.

2030. URTERAKO XEDEAK:

Bildutako hondakinen %75 gaika bereiztea.

2030erako udalerrian sortutako CO₂ isuriak %40an jaistea, 2014. urtea oinarritzat hartuz.

4. ERRONKA: MENDIA, URA ETA HERRI GUNEA, HERRI BAT

TXIKIZKAKO MERKATARITZA ETA OSTALARITZA

Txikizkako merkataritza establezimenduak, baita ostalaritzakoak ere, beherakada erakusten dute krisiaz geroztik. 2008an Pasaian txikizkako merkataritzako 211 establezimendu zeuden, 2016 berriz 163 (%22,7ko jaitsiera). Ostalaritza establezimendu kopuruari dagokienez, epealdi berdinean %8,25ean jaitsi zen, 109 establezimendu 2008an eta 100 2016an.



LAN-MERKATUA:

Pasaia langabezia tasaren eta Gipuzkoakoaren eboluzioa goranzkoa izan da urteetan zehar, baina bien arteko tartea zabaldu egin da 2010. urtetik aurrera. Horrela, 2016an %10,1eko langabezia tasa zegoen Pasaian eta %8,2koa Gipuzkoan.

2030. URTERAKO XEDEAK:

Pasaia txikizkako merkataritza zein ostalaritza establezimenduak 2008ko kopurutara iristea, eta hau barruti guztietan modu orekatuan izatea.

Pasaia langabezia tasa Gipuzkoakoaren batez bestekoaren parera jaistea, gutxienez.

